



I.E.S. PIO BAROJA BHI IRUN

Guraso agurgarriak,

Zuen seme-alabarentzat **aurtengo kurtsoa garrantzitsua izango da**, ondoren egingo dituen ikasketak erabakitzeko orduan. Tutore eta orientatzaileak bide horretan lagundu nahi diogu, eta uste dugu gurasoek ere gai honetaz zuen kezka izango dituzuela. Horregaitik azaldu nahi dizuet, batetik zein den kurtso honetan ikasleekin landu nahi dugun egitasmoa, eta bestetik, zuek ere informazioa nola jaso dezakezuen.

IKASTETXEAN egingo duguna:

- Taldeko **orientazio saioak** egingo ditugu informazioa aztertu, beharrianak antzeman eta bakoitzak bere hausnarketa egin dezan.
- Ikasleei hainbat **baliabide** emango dizkiegu informazioa eskura izan dezaten: EHUko gida, lanbide heziketako informazioa, arte ikasketei buruzkoa ...
- Banakako **elkarrizketak** ere edukiko ditugu zalantzak argitzen eta kezka bideratzen laguntzeko. Martxoaren inguruan selektibitateko izen-ematea egingo dugu.
- Eskaeraren arabera pribatuetako **hitzaldiak** ere izango ditugu.

HITZALDI, AZOKA, ATE IREKIAK guraso eta ikasleek bisitatu ditzakezenak:

- **Unitour azoka**, batez ere hemendik kanpoko unibertsitate eta ikastetxe batzuei buruzko informazioa jasotzeko (Donostian abenduak 13an. www.unitour.es).
- **Euskal Herriko Unibertsitateak** antolatzen dituen **Orientaziorako Azokak** (urtarrilak 26 Donostian, otsailak 2 Gasteizen eta 9an Bilbon) eta **Jardunaldi Irekiak** (www.ehu.eus).
- Pribatuetan informazio saioak eta sarbide-probetarako izen-ematea **azaroa/abenduan** hasten da. Beraz aukera horretaz pentsatzen ari direnak lehen bait lehen informatu behar dira. Ikasketak bertan egiteko izen-ematea maiatza inguruan amaitzen da.
- **Lanbide Heziketako** institutuetan ate irekiak udaberrian izaten dira.

Bitartean, gurasoek gai hauen inguruko informazio gehiago nahiko bazenute, deitu lasai institutura eta Orientazio Mintegitik galdetu; gustura hitzegingo dut zuekin.

Besterik gabe, informazio hau zuen interesekoa izango delakoan, har ezazue agurrik beroena.

Orientazio Mintegia

orientazioa@iespiobarobjabhi.net